

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 238/2020 Erabakia, ekainaren 9koa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdia, zeina irabazteko xederik gabeko elkarteei eta erakundeei zuzendua baitago**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 809/19 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdia onetsi zuen, zeina toki erakundeei eta irabazteko xederik gabeko elkarteei zuzendua baitago.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuen lurralde osoan, Covid-19 gaixotasuna hedatzearen ondorioz sortutako osasun krisi larria zela eta.

Ezohiko egoera hori izaten ari den eragina eta dirubilketan aurreikusten den murrizketa dela eta, Arabako Foru Aldundiak aurrekontuak egokitu behar izan ditu, bai eta neurriak hartu ere, aurrekontuak berrantolatzeke eta hasiera batean beste onuradun edo jarduera batzuetarako aurreikusitako kredituak Covid gaixotasunak eragindako kolektiboetara bideratzeko.

Bestalde, osasun krisiaren ondorioz, kuadrillek, udalek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek beren jarduketa eremuan eta turismo sustapenaren arloan zituzten lehentasunak eta beharrak aldatu egin dira eta ez dira jada Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 809/19 Erabakiaren bidez onetsitako laguntzen deialdian eskatu zituztenak.

Horrenbestez, egokia da aipatutako deialdia indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 809/19 Erabakiaren bidez 2020ko ekitaldirako onetsitako turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen deialdia, zeina toki erakundeei eta irabazteko xederik gabeko elkarteei zuzendua baitago.

Bigarrena. Bertan behera uztea gastu baimen hauek:

– 360.000,00 euro, 30.5.02.3700.465.00.01 Turismoa Kuadrillak aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.51/000).

– 145.000,00 euro, 30.5.02.3700.462.90.01 Turismoa Udalak aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.50/000).

– 85.000,00 euro, 30.5.02.3700.481.00.01 Turismoa Irabazi Asmorik gabeko Erakundeak aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.52/000).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta ebazpen hau jakinaraztea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 809/19 Erabakiaren babespean turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzak eskatu dituzten kuadrillei, udalei eta irabazteko xederik gabeko erakundeei.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta  
Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**